

Ausolan.



**Sukaldaritza zerbitzuak
zentro soziosanitarioetan**

Al.

Kaixo!


Ausolan gara.

Ausolan %100ean kapital nazionala duen enpresa-talde bat da, gizataldeei zuzendutako sukaldaritzako eta garbiketako zerbitzu integraletan liderra. 55 urtetik gorako historia du eta, denbora horretan, tokiko hainbat proiektu txertatu ditu, bezeroarekiko hurbiltasuna eta leku bakoitzeko ohiturekiko errespetua mantenduz.

Gure jatorritik hurbil, gure bezeroengandik hurbil.

1969an 17 emakumeren arteko kooperazioan sortzea Ausolanen ezaugarria izan da hastapenetik. Ausardia hori gure 11.000 langileetan, gehienak emakumeak, gurekiko konfiantza duten 2.300 bezero baino gehiagotan eta, batez ere, egunez egun gure funtsa elikatzen duten 260.000 menuetako bakoitzean proiektatzen da.

Sukaldaritzako zerbitzuak zentro soziosanitarioetan



Ezagutu
gure historia
bideo
honetan



Ausolan.

Zuri gehiago ematearen balioa

Egunero, otordu bakoitza ongizate eta zaintzarako unea izatea bermatzen dugu. Adinekoen behar zehatzetara egokitutako menu orekatuen proposamena. Badakigu elikadura osasungarria funtsezkoa dela haien ongizaterako; hori dela eta, otordu bakoitzarekin osasuna eta bizi-kalitatea sustatzen dizuzten aukera zapoetsuak eta elikagarriak eskaintzen ditugu.

“Izan ere, badakigu zapo bakoitza haien ongizaterako dagoela pentsatuta”

Etxean bezala
sentitzea

Zentzumenak
ernatzea

Zerbitzuaren
antolaketa

Beste zentro
soziosanitarioetarako cateringa

Proposamen gastronomikoa

Etxean bezala sentitzea

Badakigu etxean bezala ez dela inon jaten. Horregatik, zentro soziosanitarioetan eskaintzen ditugun jakiak, ahal den heinean, etxeakoak izan daitezten saiatzen gara. Gure adin nagusiko pertsonak zaintzen ditugu proposamen gastronomiko bakunak eskainiz, etxeako eran prestatutako sasoiko menu anitz eta orekatuekin, eta **eremu bakoitzeko gustuak eta sukaldaritza tradizionala errespetatuz.**

① Pertsonalizazioa

Elikaduraren bidezko zaintzan, pertsonalizazioa funtsezkoa da. Dieta pertsonalizatuaren gama osatuena eskaintzen dugu, egoiliarren ezaugarrietara (jatorri geografikoa, adina, berezko patologia) eta elikadura aldetiko beren premietara egokituak, testuretan arreta berezia ipiniz, menuak erabiltzaileen mastekatzeko eta irensteko ahalmenetara egokitzeko.

② Une bereziak

Gure menuetan, jaien eta une berezien ospakizunak beren leku gastronomikoa dute, ekitaldi adierazgarriak partekatzea ere garrantzitsua baita. Bizitzako une jakinak momentu gastronomiko bereziekin ospatzen ditugu, tradizioak berreskuratuz, parte hartzeko aukera emanez eta emozioak zein taldean bizitzeko uneak partekatuz.



③ Arduraz pentsatutako menuak

Diziplina anitzeko gure taldeak prestatutako elikadura, dietista eta nutrizionistak barne dituena. Dieta osasuntsu, jasangarri eta gustagarria. Menu orekatuak eta premia guztietara egokituak, kalitate goreneko lehengaiak soilik erabiliz.

④ Tradizionala, etxekoa eta sasoikoa

Sukaldaritza tradizionala eta etxekoa sustatzen dugu, jai tradizionaletan arreta berezia ipiniz, eta produktu naturalen eta sasoiko fruta eta barazkien erabilera azpimarratuz.

Zentzumenak ernatzea

Konpromisoa dugu adin nagusikoen ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin. Horregatik, gure esperientzia gastronomikoak janariarekin modu berri eta zirrargarrian gozatzeko gonbit egiten du, zentzumen guztiak aintzatetsiz, zapore berriak ezagutzen lagunduz, sukaldaritza-istorioak ezagutuz eta horiek partekatuz.

① **Plazerezko elikadura-esperientziak sortzen ditugu.** Janariak duen garrantzia baliatuz, dimentsio sozialagoa ematen diogu, beste egoiliar, zaintzaile, senitarteko eta adiskide batzuekin harremanak izatekoa, momentua gozamenerakoa izan dadin.

② Haien elikadura-ongizatean laguntzen dugu **tradizioak berreskuratzen dituzten esperientzia gastronomikoekin**, taldean esperimintatzeko emozioak eta bizipenak partekatzeko oroitzenekin.

Gurekiko konfiantza dutenen bizi-kalitatea hobetzen dugu.

③ **Zapore eta usain ezagunekiko lotura emozionala.** Zentzumen-tailerrak garatzen ditugu. Bertan, zapore eta usain ezagunekiko lotura emozionalak une bereziak oroitzen laguntzen die, eta beren memoria estimulatzen du.

④ **Autonomia eta arintasuna bultzatzen ditugu** elikadurarekin lotutako jarduera praktikoen bidez.

⑤ **Belaunaldien arteko une gastronomikoak antolatzen ditugu**, partekatutako hainbat jarduera burutuz, esate baterako, sukaldaritza-tailerrak edo errezeta-lehiaketak, errutinatik irten eta esperientziak partekatzeko aukera ematen dutenak.

Zerbitzuaren antolaketa

Pertsona kudeatzailea da, zure zentroan, zerbitzua bideratzen duen giltzarria



Zure kudeatzailea izango da, zure zentroan, Ausolan taldea kudeatzeaz arduratuko dena, beti guztiak ongi funtziona dezan. Zure zentroaren egunerokotasuna antolatu duena, egunerokotasun horretan irtenbideak emango dituena eta eraginkortasunez aurrera eramango duena.

KUDEATZAILEAREN ZEREGINAK

Langile aldetiko estaldura bermatzea

Etengabeko gainbegiraketaz arduratzea

Prestakuntza-plana proposatu eta txertatzea

Bezeroarekin komunikazio zuzena izatea

Kalitate-plana txertatzea

Gorabeherak ebaztea

Premiak aurreratzea

Zerbitzua bermatzea

Laneko planak antolatzea

Zentroaren eta Ausolaneko sailen arteko solaskide izatea

Beste catering-zerbitzu batzuk

Eguneko zentroak eta bizikidetzak

Gure catering-zerbitzuak premia, baliabide eta instalazio, eguneko zentro edota bizikidetzak-unitateei ondoen erantzungo dien zerbitzu-modalitatea eskaintzen du.



Etkez etxeko laguntza-zerbitzua

Etkez etxe laguntzeko gure catering-zerbitzua laguntza behar duten pertsonen etxean jaki prestatuak zuzenean entregatzeaz arduratzen da. Beren menua egiteko zailtasunak dituzten pertsonak artatzeko dago diseinatua, eta baliagarria da adin nagusiko pertsonentzat, osatzeko prozesuan dauden pazienteentzat, mugikortasun murriztua duten pertsonentzat edo bere etxean elikadura aldetiko laguntza behar duen edonorentzat.

↘ **Baina, oraindik, gehiago dago...**

① Dietak pertsonalizatzen ditugu: menuak pertsona bakoitzaren premia dietetiko zehatzen arabera egokitzen ditugu, eta baita mediku-baldintza berezietara ere.

② Etxean entregatzen dugu, irisgarritasuna ahalbidetuz eta pertsona elikagaiak erostera irtetea edo sukaldetan aritu beharra saihestuz.

③ Jaki-aniztasuna: sukaldaritza-aukera anitza, dieta orekatua bermatu eta gustu eta lehentasun individualak asetzeko.

④ Janari osasungarri eta nutritiboen prestaketa bezero bakoitzaren premia espezifikoak kontuan edukiz

⑤ Malgutasun handiagoa jakiak entregatzeko maiztasunean, eta balio-bizitza handiagoa duten platerekin.

⑥ Kontsumitzeko erraztasuna: menuak erraz berotu eta kontsumitzekoak dira. Argibide sinpleak gaineratzen dira, kontsumoa errazteko.




Zure jantoki-zerbitzurako aliaturik onena

Eraginkortasuna eta malgutasuna ematen dizkizugu


Hornitzaile Bakarraren gure zerbitzuarekin zure jantokiko zerbitzuaren kontrola mantentzen duzu. Eraginkorragoa eta errentagarriagoa izaten laguntzen dizugu, zerbitzuarekin lotutako arlo guztietan aholku profesionala emanez. Zure beharretara egokitzen gara, janaria prestatzen eta zutarrak zaintzen jarraitu ahal izan dezazun eta erosketak kudeatzeak eta araudi guztiak betetzeak dakarren zama guztia zure gaineratik kendu ahal izan dezazun.

Hornitzaile Bakarraren zerbitzua



Gure konpromisoa

Ausolanen, konpromisoak itxuratzen du gure izateko eta jardutek modua. Kooperatiba gisa, erantzukizun soziala gure DNAn dago.



Jasangarritasunarekin

Ausolanen alde egitea gure planetaren epe luzerako jasangarritasunarekiko kezka daukan hornitzaile baten alde egitea da. Ausolanek, etorkizunarekiko ardura sentitzeaz gain, bere estrategiaren funtsezko osagai bihurtu du jasangarritasuna.

-  Erosketa berdea
-  Mugikortasun jasangarria
-  Zerbitzu eta produktuen ekodiseinua
-  Hondakinen berrerabilera eta balorazioa
-  Ontzien ekodiseinua
-  Ekoizpen jasangarria
-  Alferririk galdutako elikagaien murrizketa
-  Hobekuntzari begirako neurketa eta jarraipena



Gure taldearekin

Gure taldeei ematen diegun zaintza eta babesaren egunero bermatu nahi dugun **osasunaren, segurtasunaren eta ongizatearen** isla dira. Guztiontzako lanpostu egonkor eta kalitatezkoak sortzen ditugu **gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna** sustatzeko. Gurean, ibilbide profesionala garatzeko eta bizitza pertsonala, familia eta lana orekatzeko baldintzak eskaintzen dizkiegu langileei. Jakintza, profesionaltasuna, aniztasuna eta **desgaitasuna duten edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak** barne hartzen ditugu. Pertsonak, finean.

Gizartearekin

Elkartasuna da gure ezaugarri nagusietako bat. Gure irabazien zati bat proiektu sozialetara bideratzen dugu. Hala sortu zen **Ausolan Fundazioa**, kolektibo zaurgarriek elikadura osasuntsua, nahikoa eta jasangarria jasotzen dutela bermatzeko, familiengan ohitura eta bizi-ingurune osasungarrien inguruko heziketa sustatzeko eta emakumeen trebakuntza tekniko eta profesionala bultzatzeko, enplegu duina lortzeko aukera izan dezaten.

Ausolan.
Fundazioa



Hitz egingo dugu?

ausolan.com



**Egunero
zurekin**

Ezagutu gaitzazu sakonago
bideo honetan

Ausolan.